

MIKELAZULO: EKIMENAK

Joxemari Carrere Zabala

“SORMENAREN PIEZAK”

Konbentzituta nago antzerkigintzak kirolatik asko daukala ikasteko. Ez naiz ari gorputza zaintzeaz; edo lehiakortasunaz; ezta ere hedabideen erabileraz. Jakina, gauza guzti horiek interesgarriak baino, beharrezkotzat jo beharko genituzke (tira, agian lehiakortasunarena ez, ez baitut uste antzerkigintza, kultura edo sormena lehiatzeko kontuak direnik, ezta kirola bera ere). Bai, badakit horiek zaintzen direla, gehiago edo gutxiago, kontuan hartzen direla. Niri kirolatik interesgarriena egiten zaidana harrobia zaintzearen arreta da. Berdin dio zein kirolaz ari garen, haur, gazte eta, orohar, zaletuen taldeak dira goi mailako taldearen euskarri eta elikabide. Kirolzaleak esango dit hemen ere esateko asko dagoela eta harrobia hau eta harrobia bestea, baina hori ez da kontua, garrantzitsuena da kirola egiteko aukerak hamaika direla edonon, maila ezberdinetan eta erritmo ezberdinekin. Horri esker kirola denbora pasa garrantzitsuena

bilakatu da gure jendartean (bai, bale, telebista eta tragoak hartzeaz gain). Mens sana in corpore sano, corporean baino ez dela gelditu jakin arren, inbidia diet kirolzaleei, euren beren zaletasuna praktikatzeko edo ikusteko edo, besterik gabe, informazioa jasotzeko guztiz erraza baitaukate (erraztasun erlatiboa askotan, badakit). Baina zer gertatzen da antzerkia egin nahi duenarekin? Zenbat aukera ditu antzerki zale batek bere gutizia asetzeko? Eta ez naiz ari antzezlan hau edo bestea ikusteaz, antzerkia egiteaz baizik. Zenbat espazio publiko erabili ahal izango ditu lagun talde antzerki zale batek beren apeta betetzeko? Non elkartuko dira? Zein baldintzatan? Nork lagunduko die?

Horri nolabaiteko irtenbidea ematearren Oreretako Mikelazulo elkarteak hileko azken ostiralean “Piezak” izeneko elkartzeak antolatzen dituzte. Bertan antzezlan edo bestelako ikuskarien puxkak eskaintzen dira, ondoren egileen eta ikusleen artean tertulia bat bideratuz ikusitakoaren gainean. Edonork proposatu dezake bere pieza,

edonork eman dezake bere iritzia. Antzerki harrobi gisa, ideiak, proposamenak, kritikak agertzen doaz, zaletasunez, handikeriarik gabe. Azkeneko agerraldian ikusle artean zegoen neska batek zioen moduan “nik ez nuen inoiz halako antzerki mota ikusi eta disfrutatu dut, pentsatzeko bidea eman dit”.

Goi mailako kirola ezinezkoa litzateke, eskoletan, auzoetan, kiroldegietan disfrutatze hutsagatik aritzen direnak ez baleude. Antzoki handiek, ekoizpen erraldoiek, ospearen glamourrak eta alfonbra gorriek, edo estreno entzutetsuek ez dute antzerkia salbatuko. Antzerkia ez da industria bat. Antzerkia pieza bat da, puxka bat. Pertsonok adierazteko dugun ahalmenaren puzzlearen pieza bat. Hori ahaztutzen badugu, bigarren mailara jaisteko arriskuan egongo gara, fitxaje garestia eginda ere.



VII. POESIAREN ASTEA

“Poesiari kale?”

Maiatzaren 14tik 20ra bitarte Erreterria/Oreretan

Mikelazulotik atera eta erdiguneko kale nagusietan barrena “Momentuen herrenbideak” ekimen artistikoa, Mikelazuloko kideen eskutik: poesia errezitaldi ttipiak, txalaparta, saxoa, irudiak, antzerkia...

Ekintza honen bidez poetikotasunera egiten dugu bidaia, poesiaren bidetik. Kaleak gordetzen ahal dituen momentuetara egiten dugu bidaia publikoarekin batera, poesia baten idazketaren oinarrian egon litezkeen uneak, keinuak, kaleak, aldarrikapenak, aktore eta musikarien laguntzaz agerian utziz. Poemaren sustraietara egin nahi dugu bidaia publikoarekin, poema bat piztu lezakeen egoera erakutsi, eta ondoren poema entzun





BihotzerreNak bitxizaki taldearen "Poesiaren arima galdua" antzerki-ekintza zumar-diko azokan zehar.

Bufoiaren teknikatik abiatuta Kolax-Mikelazulo taldeek abiatu duten esperimentu baten hasiera. "BihotzerreNak" izeneko izakiak gizakion egunerokotasunera egin dute bidaia, eguneroko ekintzetan, aldarrikapenetan, joere-tan egon litekeen poetikotasuna azpimarratzeko, gogora ekartzeko

KOLDO IZAGIRREREN "RIMMEL" LIBURUAREN AURKEZPENA

Susa argitaletxeak argitaratu duen liburuaren aurkezpena. Koldo Izagirrek bere alabarekiko harremana etapa-atal ezberdinetan banatuta azaldu du, modu gertu, zintzo eta hunkigarrian, bere lanetan ohikoak diren zorrotasuna eta irudien nahiz hitzen aberastasuna ere orriotara ekarriaz.

JUAN RAMON MAKUSOREN "HIRI GORAZARRE" ERREZITALDIA

"Hiri gorazarre" Musipoema emanaldia, musika eta poesia, irudiekin batera uztartzen dituen emanaldia. Bertan, hiri gorazarre (Elea 2006) poema liburutik ibilbide bat egiten da. Poesia liburu honetan hiria da gaia eta euskarria. Gizakiaren ibilbidea bere izaeratik, hirikoa izatea da. Eta egun, Erreterian, Mikelazulo espazioa, hiriari egiten zaion laudorioa da. Are gehiago, hitzetik hortzera iragartzen zaigu Gipuzkoa hiria eremua, eta Erreteriko Mikelazulo, artearen agora izan daiteke. Eta testuinguru honetan kokatzen dut nire nahia espazio horretan poesia emanaldia egiteko. Poesia eta musika (gitarra elektrikoa eta txeloa) eta akuarelak, hirikoa den Mikelazuloko hormak margotu eta zipriztintzea da gure nahia. Emanaldia hirien espiritua azaltzeko balio du, gonbidapen bat da hirietatik barna bidaiatzeko, poesia musika eta margoen laguntzaz."

